

EUSKAL JACOBINISMOA



Nere adiskide Jose Luis Lizundia asko asarretzen da bizkaitarren artean eta gipuzkoarren artean, beste edozein euskaldunen artean bezala, diferentziak egiten norbait entzuten baldin badu. Eta arrazoi guztia duela uste dut. Batasunaren orduan, eta batasunik gabe ezin biziko gera, partikularismoak ez dira bidezkoak.

Nolabaiteko euskal jacobinismo baten beharrean aurkitzen gerala uste dut. Nazio bat sortzerakoan edo sendotzerakoan, iraultza bat jaiotzerakoan edo bere oinharriak jartzerakoan jacobinismotik pasatzea premiazkoa izaten da. Euskaldunok ere, euskaldun-herri izan nahi badugu, lehendabizi euskaldun izan behar dugu. Gero gerokoak. Gure Herriaren batasuna, gaintasuna ta izatea gainontzeko bereiztasunen gainetik jartzen ez baditugu, ez dakit nola ahal izango dugun bizitzen jarraitzea. Lehendabizi ifarrekoen eta hegokoen, gipuzkoar, arabar, nafar eta abarren arteko diferentziak ikusi ondorenean bakarrik planteatzen baldin badugu gure eginkizuna, gure herri-gintza, ez dugu sekulan hau eskuratuko.

Jacobinismoaren arriskuak eta, batez ere, honen usu txarrak ez ditugu ahaztu behar. Dakigunez, usu hori zitalena beste herriak menderatzeko medioan bihurtzen danean izaten da. Zenbait euskaldunek ondo dakite hori. Zenbaitetan, nazioartekotasunarekin bezala, jacobinismoak inperialismoren bat edo beste estaltzen du. Gure artean horrelako zerbaiten arriskua ba dela ez dago ukatzerik. Gure Herriaren batasunaren izenean, gerta diteke norbaitek bestea menderatzea. Inola ere ez dugu ahaztu nahi hori euskal jacobinismoaz mintzatzen geranean.

Hala ere euskal jacobinismo bat, batez ere gure Herriaren batasunean sinistea, euskaldun izatea, gipuzkoar, bizkaitar edo beste edozein probintzialismo baino lehenago izatea.

Jacobinismo honekin batez ere joera bat azaldu nahia. Ba dakit gainontzeko errealitateak ez dagoela bazterterik. Lapurtarra edo arabarra izanaz dela norbait euskaldun. Bainan gure Herriaren une larri ta garratz hontan huskeriak dira hoiek guztiak. Momento hontan, bizi edo hil den une hontan, espirituz euskal zentralistak eta jacobinoak behar dugu izan. Ifarrekoak, hego aldekoak, mendabalekoak eta eguzkialdekoak. Bakoitza bere giro ta zirkuntantzietan, bainan euskalduntasuna lehendabiziko lekuan jarriaz.

Gero, arriskua pasatakoan, garratzasun hori menderatutakoan, eztabaida izango dugu elkarren artean, jacobinismoa uxatuko dugu. Bainan gero. Orain hori egiten ez badugu ez da geroko hori izango.

R. A.